

## Carlos I hiribideko lanak bai, zuhaitzak ere bai

Amara Berriko auzokideen aspaldiko aldarrikapena Donostiako sarrera Carlos I hiribidetik kentzea eta eremu hori hiriarentzat berreskuratzea izan da eta, azkenean, udaberrian hasi dira lehenbiziko aurretiko lanak. Obren ondorioz, Carlos I hiribideko pareen aldean zeuden zuhaitzak moztu dituzte, soilik **Isabel II Carlos I-rekin bat egiten duen eremu berde horretan daudenak** oraindik geratu direlarik. Bada zuhaitz horiek, **gehienak platanondoak, duela 45 urte landaturikoak eta 60 urte gorakoak dira eta inguruko garaienak** dira. Ez dago argi zer gertatuko den haiekin eta **Haritzaldetik gure kezka agertu nahi dugu, etorkizuneko urbanizazio proiektuan barneratuta nahi baititugu.**

Esan bezala, oraingoz **moztu ez badituzte ere, inguruan egiten ari diren lanek arriskua dakarte. Hortaz, eskatzen dugu zuhaitzok kontuan hartzea eta planifikazioan sartzea, etorkizuneko urbanizazioaren parte eginez.** Horregatik ere, inguruan lanean ari direla dagozkien babes neurriak hartzea eskatzen dugu.

**Haritzalden herritarron bizi-kalitatea hobetzearen alde** egiten diren ekintzen alde gaude eta, ondorioz, **bat gatoz Carlos I hiribidea auzoarentzat berreskuratzeko ekimenarekin, baina egun dauden berdeguneen mantentzearen aldekoak ere bagara,** eta tamainako zuhaitzak etorkizuneko konponbidean barneraturik egon behar dutela uste dugu.

- Informazio gehiagorako: 609 420 438

[naturzale@haritzalde.org](mailto:naturzale@haritzalde.org)

[www.haritzalde.org](http://www.haritzalde.org)

